



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Bitakora kaiera**
 Egilea / Autor: **Ibon Sarasola**
 Saila / Colección: Saiopaperak - Literatura, 19
 ISBN / EAN: 978-84-9109-153-0
 Salneurria / Precio: 14 € (BEZ barne – IVA incluído)
 Orri kopurua / N° páginas: 160
 Formatua / Formato: 14 x 22,5 cm

Egilea / El autor

Ibon Sarasola Errazkin (Donostia, 1946). Ingeniaritza ikasketak egin zituen Donostian, eta Filosofia eta Letretakoak,artzelona. Batez ere, hizkuntzalaritza landu du, hiztegiaren alorra bereziki, baina, horrez gainera, literaturari buruzko lanak eta kritikak argitaratu ditu, literatura bera bazter utzi gabe; zenbait itzulpen ere argitaratu ditu. Euskaltzain osoa da 1988az geroztik.

Mitxelena hil zenez gero, berak hartu zuen *Orotariko Euskal Hiztegiaren* zuzendaritza. 1997an argitaratu zuen *Euskal Hiztegiaren* lehen edizioa alde batetik eta *Euskara batuaren ajeak* saiakerara bestetik. 2005ean argitaratu zuen *Zehazki* gaztelania-euskera hiztegia. *Hiztegi Batua Euskal Prosa* eta *Egungo Euskararen Hiztegia* sareko hiztegieta ere parte nagusia hartu du.

Beste liburu batzuk: *Poemagintza* (1969), *Euskal Literaturaren historia* (1971), *Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza* (1975), *Joan eta Ane zigarro bat erretzen* (1977) *Contribución al estudio de textos antiguos vascos* (1990).

Lana / La obra

Berriro irakurri ditut orain liburu hau osatzen duten lau atalak. Iruditu zait bere hartan uzteko moduan daudela, zuzendu ditudan huskeria batzuk gorabehera. Aldatu dudana izenburua da. *Kontuak garbitzen* nuen pentsatua, baina testua berriakurri ondoan ez zait egokia iruditu. Berez, kontu garbitze bat da liburu, bai, baina neure buruarekiko. Eta izenburuak ez du hori iradokitzen. *Kontuak garbitzen neure buruarekin* edo horrelako ordezkoren bat ere pasatu zait burutik, baina luzeegia eta motelegia gertatuko litzateke. Azkenean *Bikakora kaiera* hautatu dut. Ez du zerikusirik Joseba Sarrionaindiaren poema gogoangarriaren giroarekin, baina uste dut bidaia baten berri ematen duela liburu honek ere. Bidaia horren aurretik idazleak eta itzultzaileak lezitzen nituen; orain, bidaiaren arian euskal idazle eta itzultzaile onak lezitu nauten eta erakutsi didate zein den bidea euskaraz ongi idazteko. Jakituria berri horren oinarriak ematera nator. Honaino heldu den irakurleak ikusiko zuen hori dela liburu honen bigarren atal giltzarriaren muina, gero hirugarren eta laugarren ataletan ere erabiltzen dena. Eta gure autore eta itzultzaile onengandik ikastea eta jakituria horren berri ematea izango da hemendik aurrera nire jokabidearen argi gidaria.

Ibon Sarasola

